EGITARAUA

Hitzaldi-solasaldiak: “Euskara, zientzia eta gizarte berriak”

Abenduak 1, asteartea

Kike Amonarriz: **“Euskararen etorkizuna eraldaltzen ari den mundu honetan”**

Mundua eraldatzen ari da, eta baita gure gizartea ere. Garai bateko Euskal Herriaren eta euskaldunen ezaugarriak eta gaur egungoenak guztiz desberdinak dira. Nola uztartu aldaketa horiek eta euskararen etorkizuna? Globalizazioa, aldaketa soziodemografikoak eta politikoak, adimen artifiziala eta teknologiaren garapena, bizi-estiloak... Aldagai horiek guztiak eragiten ari dira munduko hizkuntza komunitate guztietan, eta baita gurean ere. Bere ibilbidean zehar ezagutu eta sustatu dituen egitasmoetan eta lan-esparru desberdinetan izandako esperientzietan oinarrituta, eta gai hauen inguruan kaleratzen ari diren hausnarketa interesgarrietatik abiatuta, bere irakurketa konpartituko du Kike Amonarriz soziolinguistak publikoarekin.

Kike Amonarriz Euskal Filologian lizenziatutako soziolinguista, telebista-aurkezlea eta umorista da. 2019tik 2023ra Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria izan zen, eta 2021etik euskaltzain urgazlea da Euskaltzaindian. Euskal Telebistako hainbat saiotan hartu du parte, besteak beste, *Mihiluze*-n, eta, iaztik gaurdaino, berriro *Tribuaren berbak* izeneko saioan. Soziolinguistikari buruz makina bat hitzaldi eta artikulu eman eta argitaratu ditu.

--

Abenduak 2, asteazkena

Cecilia Fernández-Altonaga: **“Euskara ikasteaz ari garenean, zertaz ari gara?”**

Euskaraz ari garela, askotan entzuten dugu ikasteko hizkuntza zaila dela. Ikerketak erakutsi duena birpasatuz, baieztapen honi eusteko arrazoirik ote dagoen aztertuko du Cecilia Fernández-Altonaga hizkuntzalariak. Horrekin batera, hizkuntzen ikasketan eragiten duten faktoreak zeintzuk diren azalduko du eta azpimarra jarriko du

testuinguru eleanitzetan ikasketa hau erraztu dezaketen aldagaietan. Hitzaldiaren helburua da hizkuntzen ikasketari buruzko diskurtso batzuk kritikoki berrikustea, errazkerian eta aurreiritzietan erori gabe.

Cecilia Fernández-Altonaga Euskal Ikasketetan graduatua da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun doktoregaia da, eta bere tesia bi ikerketa-zentrotan garatzen ari da: EHUko Gogo Elebiduna ikertaldean eta Pau eta Aturrialdeko (UPPA) Unibertsitateko IKER-UMR 5478 laborategian, Baionan. Azken hau euskara eta euskal testuen ikerketan espezializatua dago. Bere tesia adberbioetan eta modifikatzaile adberbialetan oinarritzen da, semantikaren eta sintaxiaren ikuspegitik.

--

Abenduak 3, osteguna

Olatz Perez de Viñaspre eta Andoni Sudupe: **“Euskara eta adimen artifiziala, elkarlanean: gizarte berrietan integratzeko gakoak”**

Nola lagun dezake adimen artifizialak euskara hurbiltzen ez dakitenei eta euskararen etorkizuna bermatzen? Hitzaldi honetan, adibide praktikoen bidez, Olatz Perez de Viñaspre ingeniari informatikoak eta Andoni Sudupe adimen artifizialeko adituak hizkuntza-eredu handiek nola funtzionatzen duten eta zer aukera eskaintzen dituzten azalduko dute. Hitzaldian zehar, *Latxa* bezalako adimen artifizial irekiek euskaraz komunikatzeko, testuak ulertzeko eta euskal kultura ezagutzeko eskaintzen dituzten aukerak jorratuko dituzte. Ahotsaren teknologien bidez, berriz, hizkuntza-oztopoak gainditzeko eta euskararen erabilera errazteko bide berriak aztertuko dituzte.

Olatz Perez de Viñaspre Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamenduan doktorea da (EHU). Gaur egun, EHUko Informatika Fakultateko irakasle agregatua eta HiTZ zentroko eta Ixa taldeko ikertzailea da. Bere ikerketa lerro nagusiak hizkuntza eredu handien alborapen sozialak dira gaur egun, eta beti izan du interesa euskaraz eta euskararentzat ikerketa egitean. 2022. urtean, ingurune digitalean lan egiten duten emakumeen funtsezko zeregina aitortzen duen Gladys saria jaso zuen.

Andoni Sudupe Adimen Artifizialeko graduatua da EHUko Informatika Fakultatean. Gaur egun EHUko HiTZ zentroko eta Aholab ikerketa-taldeko kidea da. Hizkuntza-teknologien arloan lan egiten du, euskararen prozesamendu automatikoari eta ahots-teknologiei eskainiz bere ikerketa-lana. Bere ikerketa-ildo nagusia Ahozko Hizkuntza Ereduak dira, eta arlo horretan kokatzen da bere proiektu nagusia: *ahozko Latxa*, euskararako hizketa-hizkuntza eredu bat, euskarazko ahozko komunikazioa era naturalean prozesatzeko gai dena.

--

Hitzaldi-solasaldia: “Euskara, zientzia eta gizarte berriak”

- **Datak**: abenduak 1, 2 eta 3.
- **Tokia**: Elkarguneko Oteiza aretoan. Aita Madinabeitia plaza. 20720 Azkoitia.
- **Ordua:** 18:30ean.
- **Hizkuntza:** euskara.
- ***Streaminga*:** Katedratik (TikTok Live).

PROGRAMA

Charlas-coloquio: “Euskara, zientzia eta gizarte berriak" (Euskera, ciencia y nuevas sociedades)

Martes, 1 de diciembre

Kike Amonarriz “**Euskararen etorkizuna eraldatzen ari den mundu honetan”** (El futuro del euskera en un mundo en transformación)

El mundo está cambiando y también nuestra sociedad. Las características del País Vasco y de la población vascohablante del pasado son muy diferentes de las actuales. ¿Cómo se pueden compaginar estos cambios con el futuro del euskera? La globalización, los cambios sociodemográficos y políticos, la inteligencia artificial y el desarrollo tecnológico, los cambios en el estilo de vida... Todos estos factores están influyendo en las comunidades lingüísticas de todo el mundo, incluida la nuestra.

En esta charla, el sociolingüista y humorista Kike Amonarriz compartirá con el público sus reflexiones sobre esta nueva realidad a partir de su experiencia en los distintos trabajos y proyectos que ha impulsado y conocido a lo largo de su trayectoria.

Kike Amonarriz es licenciado en Filología Vasca por la Euskal Herriko Unibertsitatea. Es sociolingüista, humorista y presentador de televisión. Entre 2019 y 2023 fue presidente de la asociación Euskaltzaleen Topagunea y, desde 2021 es académico correspondiente de Euskaltzaindia. Ha participado en diversos programas de Euskal Telebista, entre ellos, *Mihiluze* y *Tribuaren berbak*. Ha impartido numerosas conferencias y publicado diversos artículos sobre sociolingüística.

Miércoles, 2 de diciembre

Cecilia Fernández-Altonaga: **“Euskara ikasteaz ari garenean, zertaz ari gara?”** (Cuando hablamos de aprender euskera, ¿de qué estamos hablando?)

A menudo se dice que el euskera es una lengua difícil de aprender. La lingüista Cecilia Fernández-Altonaga analizará si existen razones o no que justifiquen esta afirmación a partir de los resultados de las investigaciones. Además, explicará qué factores influyen en el aprendizaje de idiomas y pondrá especial atención en aquellos que puedan facilitar el proceso de aprendizaje en contextos multilingües. El objetivo de la charla es revisar algunos discursos extendidos sobre el aprendizaje de idiomas con una mirada crítica, evitando simplificaciones y prejuicios.

Cecilia Fernández-Altonaga es graduada en Estudios Vascos por la Euskal Herriko Unibertsitatea. En la actualidad es doctoranda y desarrolla su tesis doctoral en dos centros de investigación: el grupo Gogo Elebiduna (La mente bilingüe) de la EHU y el laboratorio IKER-UMR 5478 de la Universidad de Pau y de los Países del Adour (UPPA) en Baiona, especializado en el estudio del euskera y de los textos vascos. Su estudio se centra en los adverbios y los modificadores adverbiales desde la perspectiva de la semántica y la sintaxis.

--

Jueves, 3 de diciembre

Olatz Perez de Viñaspre y Andoni Sudupe: **“Euskara eta adimen artifiziala, elkarlanean: gizarte berrietan integratzeko gakoak”** (Euskera e inteligencia artificial, mano a mano: claves para la integración en las nuevas sociedades)

¿Cómo puede la inteligencia artificial contribuir a acercar el euskera a la nueva ciudadanía y garantizar su futuro? En esta charla, la ingeniera informática Olatz Perez de Viñaspre y el experto en inteligencia artificial Andoni Sudupe darán a conocer cómo funcionan los grandes modelos de lenguaje y las posibilidades que ofrecen mediante ejemplos prácticos. Durante su intervención explicarán cómo modelos de inteligencia artificial como *Latxa* pueden facilitar la comunicación en euskera, la comprensión de textos y el acercamiento a la cultura vasca. Además, explorarán nuevas vías para superar las barreras lingüísticas y facilitar el uso del euskera a través de tecnologías del habla.

Olatz Perez de Viñaspre es doctora en Análisis y Procesamiento del Lenguaje (Euskal Herriko Unibertsitatea). En la actualidad es profesora agregada de la Facultad de Informática de la EHU e investigadora del centro HiTZ y del grupo de investigación Ixa. Sus principales líneas de investigación se centran en los sesgos sociales de los grandes

modelos. En 2022 recibió el Premio Gladys saria en reconocimiento a su amplia trayectoria académica.

Andoni Sudupe es graduado en Inteligencia Artificial por la Facultad de Informática de la EHU. En la actualidad es investigador del centro HiTZ y del grupo de investigación Aholab de la EHU. Su principal línea de investigación se centra en los modelos de lenguaje oral, ámbito en el que desarrolla *ahozko Latxa*, un modelo de lenguaje basado en el habla capaz de procesar la comunicación oral en euskera de forma natural.

--

Charlas-coloquio: "Euskara, zientzia eta gizarte berriak" (Euskera, ciencia y nuevas sociedades)

- **Fechas**: 1, 2 y 3 de diciembre.
- **Lugar**: Elkargunea (Sala Oteiza). Plaza Aita Medinabeitia. 20720 Azkoitia.
- **Hora**: 18:30.
- **Idioma**: euskera.
- **Entrada**: libre hasta completar aforo.
- ***Streaming***: Katedratik (TikTok Live).